

## ADIERAZPEN ARTISTIKOA

Laugarren mailan aukerakoa izango den jakintzagai honen helburu nagusia da ikasleei adierazpenerako eta sorkuntzarako hurbilketa bat erraztea, haiek beste modu batera begiratzeko, jarduteko eta egiteko duten ausardia bultzatzea, norberaren baliabideetatik eta erreferente kultural eta artistikoetatik abiatuta sortzeko jokabidea sustatuz eta ikasleak artean, artearen bitartez eta artearengatik emozionalki inplikatuz. Aldi berean, ikasleen adimen emozionala garatuko du, norberaren hutsegiteekin ikasteko prestatuko ditu, eta beren eta gainerakoen emozioak ezagutzen lagunduko die.

Adierazpen artistikoak hainbat prozesu kognitibo, kultural, emozional eta afektibo abian jartzea dakar, guztiak pentsamendu sortzaile berean inplikatu daitezten eta bertan elkarreragin dezaten. Gainera, curriculumaren funtsezko kompetentziak garatzen eta oinarrizko hezkuntzan ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du. Praktika artistikoaren bidez, ikasleek beren pentsamendu sortzaile eta dibergentea jarriko dute abian, kontzientzia eta adierazpen kulturaletarako kompetentziari eta ekintzailtza-kompetentziari lotuta. Era berean, praktika horrek autoafirmazioa, balio pertsonalen garapena eta nortasunaren eraikuntza sustatuko ditu, eta, horren bidez, kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa landuko du.

Sortzeko prozesuaren barruan, proiektuen planteamenduan eta garapenean, STEM kompetentzia landuko da. Ikasleek beren erabakiez arduratzen eta gainerakoen iritzia kontuan hartzen ikasiko dute, eta konpromisoaren zentzu handiagoa eta berdinekin edo helduekin elkarlanean lan egiteko gaitasun handiagoa izango dute; eta, hori guztia, herritartasunerako kompetentziarekin lotuta.

Prozesu horren guztiaren, bizi izandako esperientzien, erabilitako estrategia eta baliabideen, egindako hutsegiteen eta lortutako aurrerapenen azterketak eta ebaluazioak lagungarriak izango dira sormenak ezagutza-baliabide gisa eta problemak ebazteko baliabide gisa duen balioaz jabetzeko. Horretaz jabetzeak, aldi berean, ikaskuntzak antzeko egoeretan edo beste testuinguru batzuetan berrinbertitzea bultzatuko du.

Aldi berean, ikasleek proiektu iraunkorren zuzendaritza, hondakinen eta segurtasunaren kudeaketa arduratsua eta material artistikoen toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua landuko dituzte, eta hori lagungarria izango da ikasleen prestakuntza global eta ingurumen-hezkuntza baterako. Guztiak XXI. mendeko erronka globalak izango dira.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, lau kompetentzia espezifiko ezarri dira eta jarraitutasuna eman zaio Lehen Hezkuntzako etaparen egiturari, Oinarrizko Hezkuntzan koherentzia lortzeko. Kompetentzia espezifikoak jakintzagai honen ekarpenik zuzenena jasotzen duten kompetentzia-ikaskuntzak dira. Lehen ondarearen kontserbazioa sustatzeko adierazpen artistikoen ezagutzari lotuta dago. Bigarrenak hainbat ekoizpenen ikerketa, analisisa eta azalpena ditu ardatz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinario propioa hornitzeko. Hirugarrena hizkuntza grafiko-plastikoen eta ikus-entzunezkoen esperimentazioari, sorkuntza indibidualari eta berrikuntzari lotuta dago, sortzeko prozesuaren parte diren heinean. Laugarrenak taldeko ekoizpenak duen garrantzia eta proiektu bat planifikatu, diseinatu eta ebaluatzeke faseak ditu ardatz.

Konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila planteatu diren eta konpetentziaren eskakizun-maila ezartzen duten ebaluazio-irizpideen bitartez zehazten da.

Oinarritzako jakintzak hiru multzotan egituratuta daude, eta haietako bat orokorra da. Beste bi multzoak bi ardatzetan egituratuta daude: Pertzepzio eta hautemate estetikoak eta Sorkuntza eta interpretazioa. Eta haietako bakoitzaren barruan, hiru atal daude: Teknika grafiko-plastikoak, Diseinua eta publizitatea, eta Argazkigintza, ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia.

Jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikasleei beren prestakuntza-prozesuaren protagonista izatea ahalbidetuko dieten ikas-egoera batzuk beharko dira. Horretarako, adierazpen artistikoko hainbat esperientzia ikertu eta material tradizional eta alternatiboak eta baliabide eta tresna teknologikoak erabiliko dira. Egoera horiek lagungarriak izango dira autoestimua indartuko duten eta identitatea eta jarrera sortzailea garatuko duten diziplina anitzeko abileziak, trebetasunak eta ezagutzak garatzeko.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Adierazpen kulturalak eta artistikoak genero-alborapenik gabe ezagutzea eta baloratzea, harrera aktiboak eta hainbat tresna erabiliz, jakin-minez, sentikortasunez eta errespetuz, munduaren ezagutza sakona eta kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatzeko beharra ulertzeko.

Hainbat kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, eskuratzea, aztertzea, deskribatzea, jasotzea eta ulertzea funtsezko prozesuak dira gizaki kritikoak, enpatikoak, ikusnahiak, begirunetsuak, sentiberak eta adierazpen horien aurrean interes- eta balorazio-jarrera bat agertzen dutenak prestatzeko.

Prozesu horretan, eta ekoizpen artistikoak behar bezala baloratzeko, funtsezkoa da ekoizpen horiek testuinguruan kokatzea. Horrek, aldi berean, ekoizpen horiek sortu diren edo sortu ziren gizartearen ezagutza sakonagoa eta toleranteagoa ekarriko du. Alderdi hori lantzean, ondare artistiko komuna kontserbatu, zaindu eta zabaltzearen garrantzi handia ulertuko dute ikasleek, beren identitatea osatzen lagunduko dien ondarerik hurbilenarekin hasi eta identitatea aberastuko duen gizateria osoaren ondarea ezagutu arte. Aztertutako adibideen artean, genero-ikuspegia txertatuko da eta emakumeek egindako ekoizpen artistikoak aztertuko dira.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1.

2. Ekoizpen propioak, berdinen ekoizpenak eta ondarearen parte direnak ikertzea, aztertzea eta azaltzea, interesa agertuz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeko eta imajinario propioa hornitzeko.

Ekoizpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko garaikideak inoiz baino zabalagoak dira, eta azken horiek nonahi daude gure gizartearen. Ekoizpen horiek ikertzea, aztertzea eta azaltzea (haien aniztasun eta konplexutasun osoa hautemateko) aberasgarria da ikasleentzat; izan ere, artelan plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak behatzeak dakarren plazeraz gain, artelan horiek gizaki ororen identitatearen zati bat eraikitzeko oinarriak dira, eta hori funtsezkoa da imajinario aberats bat lantzeko eta munduari zuzendutako begirada enpatiko eta aurreiritzirik gabeko baten oinarriak finkatzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, ikasleek ulertzea mezu artistiko eta kulturalen konplexutasun osoaz jabetzeko analisi-lan bat egin behar dela. Lan horrek artelan orok behar duen sorkuntza-prozesuaz neurri handiagoan jabetzea ahalbidetuko du, eta horrek balioa eta sendotasuna emango dio sorkuntzaren inguruko esperientzia propioari. Horretan oinarrituta, eta erabilitako hizkuntzak aktiboki bereganatuz, ikasleek diskurtso pertsonal bat sortu ahal izango dute aurrerago.

Aldi berean, ekoizpen propioak eta kanpokoak aztertzeak, berdinekin esperientziak partekatzeak eta esperientzia horiek bateratzeak ikasleek beren ikuspegia zabaltzeko balio behar dute. Ikasleek hizkuntza

plastikoei, ikusizkoei eta ikus-entzunezkoei buruzko zenbat eta ezagutza handiagoa izan, orduan eta errazagoa izango da egungo gizartean kultura-elementu gisa duten garrantzia ulertzea. Horren ondorio logiko bat sorkuntza artistikoari —oro har— eta haren ikusizko eta ikus-entzunezko adierazpenei —beziki— begirune eta tolerantzia handiz begiratzea izango da.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE3, KD1, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2

3. Hizkuntza grafiko-plastikoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimendatzea eta proposamen pertsonalak sortzea ikerketaren, berrikuntzaren eta praktikaren bidez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazi eta komunikatzeko eta hobekuntzarako, autoestimurako eta autokritikarako gaitasuna jarrera irekiarekin garatzeko.

Ekoizpen artistikoak sortzean, erabil daitezkeen teknikak eta hizkuntzak ia mugagabeak dira, eta emaitzak gizakiaren sormena (aurrez finkatutako formatu batean itxi ezin dena) bezain askotarikoak dira. Horretarako, garrantzitsua da hizkuntza plastikoekin, ikusizkoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimendatzea, baita sorkuntzarako baliabide eta tresnekin ere bai.

Ikasleek gauzak modu autonomo, berezi eta esanguratsuan eta ikuspegi pertsonal bat emanez adieraztea lortzeko, forma berriak ikertu, ezagutu eta aurkitu behar dituzte eta lortutako emaitzekin esperimendatu eta berri behar dute.

Ekoizpen artistiko bat behar bezala burutzeko, beharrezkoa da porrotaren ideia ikasteko modu gisa onartzea eta hobekuntzarako, autoestimurako eta autokritikarako gaitasuna jarrera irekiarekin sustatzea.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: KE2, STEM1, KD2, KPSII1, KPSII4, KPSII5, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

4. Kolaborazioan oinarritutako ekoizpen kultural eta artistikoak diseinatzen, lantzen, argudiatzen eta zabaltzen parte hartzea, prozesuaren balioa agerian jarriz eta azken emaitza lortzeko hainbat rol bere gain hartuz, sormena, egiletzaren nozioa eta kide izatearen zentzua garatzeko.

Ekoizpen kultural eta artistikoak sortzen, diseinatzen, lantzen eta zabaltzen parte hartzea funtsezkoa da gizabanakoa bete-betean garatzeko. Era berean, hezkidetzeta-ikuspegitik, ezinbestekoa da talde-ekoizpenetan esku hartzea, kooperazioa-lanal ezagutu, errespetatu eta baloratu beharrek askotariko rolak daudela onartzea eta ulertzea baitakar. Zalantzarik gabe, kooperazioak identitatea aberasten eta erakitzen laguntzen du sormenezko adierazpen artistikoen eta teknika plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak erabiliz egindako hainbat emankizun eta adierazpenen erabileraren bidez.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: KE2, STEM3, KD2, KPSII4, KPSII5, HK3, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Adierazpen artistikoa
<b>1. konpetentzia espezifikoak</b>
1.1 Hainbat adierazpen artistikoren arteko puntu komunak nabarmentzea, pentsamendu kritikoarekin, elkarrekiko harremanak eta eragin partekatutak ulertuz, haien mezuen asmoak aurreiritzirik gabe identifikatuz eta hiztegi espezifikoak erabiliz.
1.2 Arte mundua ezagutzeko eta ulertzeko modu gisa balioestea, adierazpen kultural eta artistikoen funtsezko alderdiei, gizartean betetzen duten funtzioari eta haien kontserbazioaren garrantziari buruz ekiteko jarrerarekin eta jakin-minez hausnartuz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Adierazpen artistikoa	
<b>2. kompetentzia espezifikoak</b>	
2.1 Norberaren eta besteen ekoizpenak interesarekin ikertzea, eskaintzen dituzten erantzun alternatiboak aurkituz, hizkuntza artistikoei eskaintzen dituzten ebazpen-aukera ugariak ulertuz eta norberaren imaginarioa zabalduz.	
2.2 Norberaren eta besteen proposamen artistikoen hizkuntzak eta elementu teknikoak aztertzea eta azaltzea, arau eta kode propioei jarraitzen dieten egiaztatuz eta arau horiek malgutzeko aukera modu irekian baloratu.	
<b>3. kompetentzia espezifikoak</b>	
3.1. Ekoizpen artistiko grafiko-plastikoa eta/edo ikus-entzunezkoa sormenez proiektatzea, beharrezkoak diren tresnak, baliabideak eta euskarriak identifikatuz, haien aukeraketa modu arrazoituan justifikatuz eta haien erabileraren berrikuntzaren bilaketan saiatuak izanez.	
3.2. Proposamen artistiko grafiko-plastikoa eta/edo ikus-entzunezkoak sormenez eta adierazpen- eta komunikazio-asmopertsonal batekin lantzea, gauzatzean plangintza zein bat-batekotasuna gaineratuz eta autokritika garatuz.	
3.3. Praktika artistikoa norberaren berezitasuna adierazteko, bere buruari buruzko ezagutza finkatzeko eta autokonfiantza sortzeko baliabide gisa ezagutzea, prozesu grafiko-plastikoan eta ikus-entzunezkoan jarrera irekiarekin esperimentatuz eta berrituz.	
<b>4. kompetentzia espezifikoak</b>	
4.1 Ekoizpen artistiko grafiko-plastiko eta/edo ikus-entzunezko kolektibo bat planifikatzea, beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak identifikatuz, hainbat rol elkarlanean bere gain hartuz, berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkidetzaz-ikuspegi baten bitartez.	
4.2 Ekoizpen grafiko-plastiko eta/edo ikus-entzunezko kolektibo bat egitea, norberaren baliabideak eta teknikak sormenez erabiliz, adierazpen-asmoei bat etorriko den azken emaitza bat bilatuz eta aurreikusitako plangintzari jarraituz, iraunkortasun-irizpideekin.	
4.3. Produktu artistiko baten sorkuntzaren azken emaitza azaltzea, lantzeko prozesuaren garapena, aurkitutako zailtasunak, egindako aurrerapenak eta lorpenen balorazio positiboa partekatuz.	

## OINARRIZKO JAKINTZAK

Adierazpen artistikoa	
<b>A. Pertzepzio eta hautemate estetikoak eta analisia</b>	
1. Teknika grafikoplastikoa.	Keinuaren eta tresnaren efektuak: tresnak, baliabideak eta euskarriak. Ezaugarri plastikoa eta ikusizko efektuak.*
	Birziklatzearen artea. Produktu ekologikoak, iraunkorrak eta berritzaileak praktika artistikoan. Arte eta natura.
	Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Hondakinen kudeaketa arduratsua.
2. Diseinua eta publizitatea.	Ikusizko hizkuntzaren eta pertzepzioaren elementuak eta oinarrizko printzipioak. Kolorea eta konposizioa.*
	Diseinuaren eremuak eta adarrak: diseinu grafiko, produktu-diseinua, moda, barnealdeak, eszenografia. Diseinu inklusiboaren hastapenak.
	Publizitatea: baliabide formalak, hizkuntza-baliabideak eta pertsuasio-baliabideak. Publizitate subliminala. Estereotipoak eta kontsumo-gizartea. Kontsumo arduratsua.
3. Argazkigintza, ikusentzunezko hizkuntza eta multimedia.	Irudi finkoaren narratiba: enkoadraketa eta plangintza, ikuspuntuak eta angeluazioa.*
	Irudi sekuentziatua.
	Argazkigintza analogikoa: kamera iluna. Kamerarik gabeko argazkigintza (fotogramak). Argazkigintza digitala. Argazkigintza adierazkorra.

2023ko uztailaren 31, astelehena

<b>Adierazpen artistikoa</b>	
	Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Hondakinen kudeaketa arduratsua. Ikus-entzunezko narratiba: fotograma, sekuentzia, eszena, hartualdia, plano eta muntaketa.*
<b>B. Sorkuntza eta interpretazioa.</b>	
1. Teknika grafikoplastikoak.	Marrazketa, ilustrazio eta pinturako teknikak: teknika lehorrak eta hezeak.* Abangoardia artistikoen teknika mistoak eta alternatiboak. Adierazteko aukerak eta testuinguru historikoa. Estanpazio-teknikak: monotipia laua. Zuzeneko prozedurak, eransgarriak, kengarriak eta mistoak. Grafitia eta horma-pintura. Bolumenak modelatzeko oinarrizko teknikak.*
2. Diseinua eta publizitatea	Sortzeko prozesua. Gauzatzea eta jarraipena: zirriborroa, gidoia edo proiektua, azken aurkezpena, ebaluazioa (autogogoeta, autoebaluazioa eta ebaluazio kolektiboa) eta hedapena.* Hedabideak: irratia, telebista, sare sozialak, zerbitzu digitalen plataformak, webguneak, publizitate-hesiak eta abar.
3. Argazkigintza, ikusentzunezko hizkuntza eta multimedia.	Argazkigintza-teknika esperimentalak: zianotipia edo antotipia Argazkigintza analogikoko teknikak: kamera iluna. Argazkigintza digitaleko teknikak. Argazkigintza adierazkorra. Fotomuntaketa digitala eta tradizionala. Gidoia eta story-boarda.* Oinarrizko animazio-teknikak. Bideo-arteko proiektuak.
<b>C. Orokorrak.</b>	
Esparru plastikoei, ikusizkoei eta ikus-entzunezkoei lotutako lanbideak. Bokazio profesionalaren ezagutza, balorazioa eta sustapena.	
Genero-ikuspegia eta estereotipoen haustura. Aniztasunarekiko errespetua.	
Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoen harreran eta sorkuntzan, diseinua eta publizitatea eta argazkigintza. Ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia hainbat espazio kultural eta artistikotan, netiketa-arauak kontuan hartuz. *	
Esparru grafiko-plastikoari, diseinuari eta publizitateari, argazkigintzari eta ikus-entzunezko hizkuntzari eta multimediar lotutako hizkuntza eta hiztegia. Ezagutza eta erabilera.	
Akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartzea.	
Ahalegina, helburuak lortzeko metodoa eta bidea.	
Ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko askotariko rolak daudela onartu eta ulertzeko jarraibideak. Rolak elkarlanean bere gain hartzea.	
Pentsamendu kritiko eta dibergentea eta sormenaren garapena.	
Enpatia eta hainbat ikuspunturen balorazioa.	
Autonomia, autokonfiantza eta autokritika sendotzea.	
Interesa, jakin-mina, ekimena, jarrera irekia eta sentsibilitatea.	